



13. JARDUERA: GURE DENDA ON LINE

Helburua:

Hashingaren oinarriak ezagutzea informazioa bilatzeko metodo gisa. Konputazio-hizkuntzan, bilaketa-giltza manipulatu egiten da, informazioa non aurkitu zehazki adieraz dezan.

Programatzaileek hashing estrategiaren bertsioen bat erabili ohi dute bilatzeko, non eta ez den garrantzitsua datuak ordenatuta edukitzea edo noizbehinkako erantzuna onartezina izatea.

Jarduera:

COSTA Informalian on lie merkatura abiatu gara. Bai, entzuten duzun bezala. Lehen on line market-a inauguratu dugu, eta han gure irlako oroigarriak eros daitezke.

Imajinatuko duzunez, funtzionamendua ez da lehen begiratuan 3r funtzioa bezain sinplea. Bezeraok artikulua jakin bat bilatzen du datu-basean eta bere eskaera egiten du; guk datu-base bat erabiltzen dugu artikulua erosleari eta haren posta-helbideari esleitzeko. Prozesu horrek sailkapen-, batuketa- eta ezabatze-lanak eskatzen ditu eskaera egiten den bitartean. Modu eraginkorragoan kudeatu ahal izateko, datu-basean helbide-kokapen batean elementu komunak dituzten datu-kopuru handiak laburtzen dira. Posizio hori hash balioen bidez kalkulatzen da, eta taula batek osatzen du, luzera bereko zifra- eta letra-konbinazioekin.

Datu-baseetan hash taulak erabiltzen dira datu-multzoak bilatzeko, erregistratzeko eta ezabatzeko prozesuak azkartzeko.

Jarduera honetan, egin diguten azken eskaera zein zutabetan (otik gra) dagoen jakin behar duzu. Eskaera 2345 zenbakia da. Digtu horiek gehitu besterik ez da egin behar. Batuketaren azken digitua zutabea da. Adibidez, 2345 zenbakia duen eskaera aurkitzeko, batu $2+3+4+5$ digituak (14). Batuketaren azken digitua 4 da; orduan, eskaerak 4. zutabea egon behar du. Zutabea jakin ondoren, zutabe horretako zein eskaera aukeratu den asmatu besterik ez da egin behar.

Probatzera animatzen zara?

